

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2486

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «AFDA» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduaren baimena aldatzen duena, esgrima modalitatean irakaskuntzak gehitzeagatik.

«Arabako Kirol Federazioen Elkarte (AFDA)» erakundeak aurkeztutako eskabidea aztertu da. Erakunde hori Vitoria-Gasteizko (Araba) «AFDA» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduaren titularra da, eta ikastetxe horren administrazio-baimena aldatzea eskatzen du irakaskuntzak gehitzeagatik, esgrimako kirol-teknikariaren titulua lortzeko irakaskuntzak baimendu ahal izateko.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazioa erantsi zaio, eta gai horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena egin dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legea, Araubide Bereziko Kirol Irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, Esgrimako kirol-teknikariaren titulua ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak eta sartzeko baldintzak finkatzen dituen ekainaren 8ko 911/2012 Errege Dekretua, Esgrimako kirol-teknikariaren tituluari dagokion erdi-mailako hasierako eta amaierako zikloen curriculuma ezartzen duen azaroaren 4ko ECD/2076/2014 Agindua, eta gai horretan aplikagarri diren indarreko gainerako legeak aztertu dira. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baimena ematea Vitoria-Gasteizko «AFDA» Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Baimenduari emandako baimena aldatzeko, irakaskuntzak gehitzeagatik.

Baimentzen diren irakaskuntzak: Araubide bereziko irakaskuntzak, esgrimako kirol-teknikariaren titulua lortzera bideratuak.

Irakaskuntzak gehitzearen ondorioz, 2025-2026 ikasturtetik aurrera, ikastetxe hori Hezkuntza Sailaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erregistroan inskribatuta geratuko da, erregistro-datu hauekin:

Kodeak: 010716 (EAE) eta 01007786 (unibertsala).

Izen generikoa: Kirol Irakaskuntzen Zentro Baimendua (KIIB).

Izen espezifikoa: «AFDA».

Titularra: «Arabako Kirol Federazioen Elkarte (AFDA)».

Helbidea: Amadeo Garcia de Salazar plaza 2, behea.

Udalerrria: Vitoria-Gasteiz.

Lurralde Historikoa: Araba.

Ondoriozko osaera:

- Modalitatea: atletismoa.

Erdi-maila: ziklo bat, 25 ikaspostutarako edukierarekin.

Goi-maila: ziklo bat, 25 ikaspostutarako edukierarekin.

- Modalitatea: saskibaloia.

Erdi-maila: ziklo bat, 25 ikaspostutarako edukierarekin.

Goi-maila: ziklo bat, 25 ikaspostutarako edukierarekin.

- Modalitatea: Esgrima.

Goi-maila: ziklo bat, 20 ikaspostutarako edukierarekin.

Erdi-maila: ziklo bat, 20 ikaspostutarako edukierarekin.

Bigarrena.– Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren hamahirugarren artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastetxeak ezin izango du bere burua identifikatzeko bere erregistro-inskripzioan agertzen denaz bestelako izendapenik erabili.

Hirugarrena.– Baimendutako irakaskuntzak indarrean dagoen antolamendu akademikoaren arabera emango dira. Ikastetxearen erakunde titularrak indarrean dagoen araudia bete beharko du ikaspostuen kopuruari, ekipamenduari, irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskaki-zunari eta aplikatu beharreko indarreko gainerako legeriari dagokienez, eta emandako baimena berrikusteko eskatu beharko du, ikastetxeko erregistro-daturen bat aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetuko litzateke.

Laugarrena.– Zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna zentroaren erakunde titularrari dagokio.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honetan jasotako baimena emateak ez du esan nahi, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bidez laguntzak lortu direnik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 23a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.